

# Galtzaundi

ALQUIZAR

**ESKUALDEA:** Alpino Uzturre elkartearen 50. urteurrena **GABONETAKO GEHIGARRIA**

**GABONETAKO ZOZKETA KULTURA:** Bonberenea Txarangaren disko berria laster kalean

**KIROL SALTSA:** Txirrindularitzari buruzko mahai-ingurua

**ERREPORTAIA:** Eskualdeko anaiak ezagutuz



*Ibarra Galtzakomik  
lehiaketa, arrakastatsua*



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxe\_943 655 206  
[gtolesa@aldamatapia.com](mailto:gtolesa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

## NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK 587



**AMAIA ETXETXIPIA**  
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



### TOLOSA

San Francisco, 13-2.A  
Tel.: 943 654 250  
Faxa: 943 650 460

### DONOSTIA

Bermingham kalea 1 esk ppal  
20.002 DONOSTIA  
Tel.: 943 316 126  
Faxa: 943 316 127

Kontabilitate-,  
Finantza-,  
Lan-,  
Merkatal-,  
eta aholkularitza fiskala

**ARGITU asesores**

San Frantzisko, 5-1. Esk. - TOLOSA - Tel: 943 654 727 - Faxa: 943 650 288  
E-posta: [argitu@argitu.es](mailto:argitu@argitu.es)

Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura



**VRPA**  
AUTOBUSAK

Tel.: 666 489 010 / 11 (24 orduak)  
Tel.: 943 305 050 (Garajea)  
Faxa: 943 305 060 (Garajea)

Ubillus auzunea. 55 polig. 9 pabilioia, 4 zbkia.  
ANDOAIN (Gipuzkoa)



**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea,  
6-behea,  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefonoa:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izaguirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banataileak:** Oihana Sanchez,  
Juankar Arregi.

**Idazkaria:** Edurne Mencia.

**Maketazioa:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Truxuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxoa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosaldeko Udaleren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

## IRITZIAREN LEIHOA

- Bixente Gorostidi: Bertso eskola eskolara
- Garbiñe Biurrun: Negu koloreko udazkena

4-5. orrialdeak

## NORMALIZAZIO ATALA

- Paul Bilbao, Hizkuntz eskubideen urraketei tinko



6. orrialdea

## ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Alpino Uzturreren 50. urteurrena: Bertako kideekin solasaldia



10-11 orrialdeak

# Galtzaundi 292

2008ko abenduaren 19a

|                                                                |       |
|----------------------------------------------------------------|-------|
| Iritziaren leihoa: Bixente Gorostidi eta Garbiñe Biurrun ..... | 4-5   |
| Erreportaia: Anaieratzeak: Eskualdeko anaiak ezagutzen.....    | 7-9   |
| Eskualdeko albisteak:                                          |       |
| Alpino Uzturreren 50. urteurrenako mahai-ingurua.....          | 10-11 |
| Kultura:                                                       |       |
| Bonberenea Txarangaren disko berriaz elkarriketa .....         | 16-17 |
| Kirol saltsa:                                                  |       |
| Eskualdeko txirindulariak mahai-inguruan .....                 | 18-19 |



## KULTURA

Galtzakomik komiki leihaketaren sari banaketa ekitaldia


14-15. orrialdeak



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## GABONETAKO- GEHIGARRI BEREZIA

|                                           |     |
|-------------------------------------------|-----|
| - Azala.....                              | 1   |
| - Ekintza solidarioak eskualdean.....     | 2-3 |
| - Gabonetan bidaiatzeko ohituraz.....     | 4-5 |
| - Aginaldoak.....                         | 6   |
| - Publikerreportaia.....                  | 7   |
| - Gabon ekologikoak izateko aholkuak..... | 8   |

## GABONETAKO ZOKETA BAZKIDEEN ARTEAN

13. orrialdea



## BERTSOESKOLA ESKOLARA

### BIXENTE GOROSTIDI

Bertsolaria

**T**olosan seigarren urtez ari gara aurten ikastetxeetan Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektua lantzen. Ikasle, irakasle eta ikastetxeen aldetik oso harrera ona izan du proiektuak, eta irakasleen arabera ari da bere emaitzak ematen. Proiektua martxan dagoen beste herri gehienetan bertso eskolak sortu dira. Eta lehen martxan zeudenean ikasle kopurua hazi egin da. Tolosan oraindik ez dugu lortu bertso eskola martxan jartzea. Saiakera batzuk egin ditugu eta oso zaila da, gaur egungo ikasleen agendak tarte, astean egun eta ordu jakin batean dozena bat ikasle bertsotarako elkartzea.

Hori ikusita erabaki dugu bertsoeskola eskolara eramatea. Hau da Tolosako hiru ikastetxeetan jarriko ditugu bertsoeskolak. Eskaintza 5. eta 6. mailako ikasleei eta DBHko 1,2,3 eta 4. mailai



egingo diegu. Bertsoeskola astean behin izango da, eguerditan eta ikasleek erabakitzen duten egun eta orduan.

Horrekin batera, helduen bertso-eskola edo hori baino gehiago bertsozaleen bilerak egiten hasiko gara urtarri-

*“Tolosako hiru ikastetxeetan jarriko ditugu bertsoeskolak. Eskaintza 5. eta 6. mailako ikasleei eta DBHko 1,2,3 eta 4. mailai egingo diegu. Bertsoeskola astean behin izango da, eguerditan eta ikasleek erabakitzen duten egun eta orduan”*

tik aurrera, bertso ikastaroak, hitzaldiak, bertso-afariak eta bestelako ekitaldiak antolatzen hasteko.

Tolosa eta Tolosaldeko elkarte batzuk interes handia dute proiektu horretan parte hartzeko. Orain arte guregana zuzendu diren eta gertutik ezagutzen ditugun elkarte batzuekin bakarrik jarri gara harremanetan, guztiengana ezin iritsita, baina udaberrirako elkarte guztiek proiektuaren berri izatea da helburua eta ahalik eta proiektukide gehien biltzea. ■

Eta behia?

**Citroën C4 Picasso, Visiospace-a.**  
Barrualdea kanpoaldeaz gozatzeko sortua.  
C4 PICASSO 17.850€\*-TIK  
+ ARRISKU OROTAKO ASEGURUA OPARI.<sup>(1)</sup>

### ETA PREZIO BERRIAK GAMA OSOAN:



Patrizinatzaile ofiziala

0% MATRIKULAZIO ZERGA: C1 | C2HDI | C3HDI | C4HDI 90/110/110 CMP

Informazioa: Citroën 902 44 55 66 Operazio bereziak ikus itzazu [www.citroen.es](http://www.citroen.es) web gunean

Kontsumo mistoa (L/100 Km) / Jaulkipena CO<sub>2</sub> (g/km): C1: 4,1-4,6/108-109 C3: 4,3-7,2/113-172 C4: 4,4-6,9/117-175 Xsara Picasso: 5,1-7,3/130-172 C4 Picasso: 5,3-7,4/140-195

\*Salneurri gomendatua C1 1.0 X 3p., C3 1.1i Furio, C4 1.4 16v 90cv LX 5p., Xsara Picasso 1.6i 16v LX Plus, C4 Picasso 5p. AM61 VTI 120 Cool (B/E:2-a barne, matrikulazio zerga, garraioa eta eskaintza) Eskaintza metsezina: Hilaile bukatu bitarte baliaerria stock-ean dauden autotzat. Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrentzat, parte hartzen duten tokietan salgai. Ikusgai dauden modelak: C1 Audice, C3 Exclusive, C4 Exclusive Plus, Xsara Picasso Exclusive, C4 Picasso Exclusive 5p. (1) Artikulu orotara aseguru frankozienekin (150€ 600€) lehenengo urtean baina Compagnie Directa seguruaren konpainiarekin edo Aon Gil eta Carvajal bitartekari izanik, S.A.U. Asegurari aurrez. Citroën Credit-engan eskaintza 28 urte gorako bezero partikularrentzat. C4, C4 Picasso edo Xsara Picasso bat erosten dutez, eta adin mugarik gabe C3 erosten duenarentzat, 5.000€

CITROËN preferit TOTAL



CITROËN C1  
7.700€\*-TIK



CITROËN C3 9.100€\*-TIK  
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA.



CITROËN C4 11.800€\*-TIK  
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA.



CITROËN XSARA  
PICASSO 12.900€\*-TIK  
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA.



NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

ZATOK IKUSTERA:

**IROVI, S.A.**

Kontzesionario Ofiziala Citroën  
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa



## NEGU KOLOREKO UDAZKENA

### GARBIÑE BIURRUN

Epailea

**N**egu luzea aurtengoa. Lau urtarotatik azkenen omen da negua, baina horretarako beste aurreko hirurak igaro behar dira. Ez dakit arau hau amaitzen ari den 2008an bete den; ezetz esango nuke.

Begira, ipar hemisferioan negua abenduko solstiziotik martxoko ekinoziora zabalitzen da. Badirudi argi dagoela ipar hemisferioan kokatzen dela gure herria – Euskadi nahiz Euskal Herria –; beraz, guretzat neguak hila-ren 22an hasi beharko luke. Baina, lehen esan bezala, aurtun zerbaitek huts egin duelakoan nago.

Gure hemisferioan neguko solstizioan dugu egunik motzena eta gaurik luzeena eta horregatik negua urteko sasoirik hotzena da. Eguzkia lurretik urrun dago, hain zuzen ere posible den distantziarik handienara. Horren urrun dagoenez, latinez eguzkia geldirik zegoela esaten zen: sol sistere /sostitium.

Argibide hauen aurrean, nork ez du baieztatu negua aspaldian iritsi zaigula?. Hori da nire sententzia behintzat. Bueno, egia esan, banenkien zerbaitek gelditu

zela, baina ez nuen eguzkiaren tentsio ere egin.

Gainera, nire ustez lurra zen mugitzen zena, bai eguzkiaren inguruan, baita bere inguruan biratzerakoan. Beraz, urruntzen dena ez da eguzkia, lurra baizik. Orduan, gure hotzaren eta iluntasunaren erantzukizuna lurrarena da zati batean, eguzkitik aldentu izateagatik; beste zatian eguzkiarena da: berak ematen baitigu bai beroa baita argitasuna ere. Biren ardura da, beraz, denon bizitza eta ongizatea bermatzea, bakoitzak bere betiko mugimendua eginez.

Aldiz, lurraren beste muturrean, hego hemisferioan, guztiz kontrakoa gertatzen da. Gure egunik motzena hango luzeena da eta gure hotza haien beroa. Halere, ez dago kezkatzeko arrazoirik: gure eguzki sistema dagoenetik hemendik sei hilabetera egoera alderantzizkoa izango da, hau da, han hotza eta hemen beroa eta argia.

Gure mundua horren bixia izanik, badago hainbat jende handik hona dabilena eta hemisferiotik hemisferiora erraz joaten dena. Hemen uda dela eta, tira Patagoniara eskiatzera!; hemen negua dela eta, alde ez dakit

nongo hondartzetara: batzuek ez dute inoiz hotzik; beste batzuek ez dute beroaz usteldu nahi.

Gehienok gure hemisferioaren patuarekin bat egiten dugu eta lurraren mugimenduari jarraitzen diogu, apal eta itxaropentsu, urtarok joan eta berriro ere etorriko direla sinistuz.

Ez da beti horrela gertatzen, ordea. Ez denontzat, behintzat. Batzuentzat, eguzkia betiko gelditzen da eta lurra ez zaio eguzkiari berriz ere hurbiltzen: gaua eta hotza barruraino sartu zaie betiko. Hau ez da ez lurraren ez eguzkiaren erantzukizuna, gure hemisferio santu honentzat iluntasuna besterik nahi ez dutenen erantzukizuna baizik.

Inaxio URIA gure hemisferioan bizi zen udaberria noiz iritsiko zen zain. Epeltasuna ekarri nahi zigun eta horretarako egunero pizten zuen bere lanaren sua. Bazekeen berak udazkenaren ondoren negua zetorrela eta gero udaberria eta uda eta hego hemisferioan gauzak alderantziz gertatzen zirela eta, horri esker, gure lur maite honetan nonbait beti zegoela argia eta beroa. Bazekeen baita ere hori gerta

*“ Nik ere ez nuen espero. Ez dut onartzen. Ez dut betiko negurik nahi. Uda-kena nahi nuen eta udaberria eskatzen dut, bai niretzat, nireentzat eta Inaxio URIA maite zutenentzat. Badakit horretarako denok gure eguneroko mugimendua egin behar dugula. Ea bada, batzuek ikasten duten”.*

ahal izateko nork berea egin behar duela: eguzkiak eta lurra, bakoitzak berea. Espero ez zuena zen batzuek mugimendu hori aldarazi nahiko luketeenik.

Nik ere ez nuen espero. Ez dut onartzen. Ez dut betiko negurik nahi. Uda-kena nahi nuen eta udaberria eskatzen dut, bai niretzat, nireentzat eta Inaxio URIA maite zutenentzat. Badakit horretarako denok gure eguneroko mugimendua egin behar dugula. Ea bada, batzuek ikasten duten.

Ez dut Ipar Poloan bezala egon nahi. Ez dakit badakizuen, baina han, neguko solstizio egunean, eguzkia ez da ateratzen. ETak estali ote?.

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**SANTAMARIA**

*Ortopedia*

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

**SHANTI**

*kirolak*

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

# Paul Bilbao, Hizkuntz eskubideen urraketei tinko

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN URRAKETAK MINTZAGAI

Erredakzio Batzordea

## Zein da Behatokiak burutzen duen lana?

Behatokia euskaldunon hizkuntza-eskubideak babesteko Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluak sortutako tresna da. Hartara, Behatokiak hainbat proiektu jarri izan ditu abian helburu horri begira. Horien artean bi azpimarratu nahiko nituzke; batetik Euskararen telefonoa delako zerbitzua, eta bestetik, hizkuntza-eskubideen egoera biltzen duen urteko txostena.

Euskararen telefonoaren bidez herritarrei tresna bat eskaini nahi zaie hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean jarrera aktiboa izan dezaten. Hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean babesgabe ikusten du bere burua herritarrak, eta arrazoi horregatik, haien kexak bideratuko dituen tresna baliatu ahal dute.

Urteko txostenaren bidez, aldiz, Behatokiak instituzioetan, erakundeetan eta abarrekoetan eragin nahi du. Hizkuntza-eskubideen inguruko argazki horretan urterik urte beltzune handienak non daudden erakusten dugu, eta beraz, hizkuntza-politikak edota plangintzak definitzeko material interesgarria dela uste dugu.

**Tolosaldean ere ugariak dira hizkuntz eskubideen urraketak ematen diren eremuak. Horretarako, UEMA eta Behatokiaren arteko proiektua dagoeneko martxan jarri dute. Kexak biltzeko buzoiak ezarri dituzte UEMAko herrietan.**



## UEMA eta Behatokiaren arteko proiektu honen helburu nagusia zein da?

Hiru helburu nagusi ditu bi erakundeek arteko elkarlanak. Batetik, Behatokia herritarrei gerturatzea. Hitzarmen horri esker hainbat postontzi jarri dira, herritarrek kexak eta gainerakoak helarazteko. Bestalde, UEMAko udalei euskaraz lan egiteagatik jartzen zaizkien oztopoak konpontzen saiatuko da Behatokia; eta azkenik, herritarren artean hizkuntza-eskubideak gizarteratzeko bestelako ekimenak antolatuko ditugu.

## Zenbatekoa da eskualde mailako kexa kopurua?

2008ko espedienteak bidera-

tuta badaude ere, datuak ez dira oraindik publiko egin; hala ere, aurreko urtetik hona gehikuntza handia izan dela ondorioztatu dugu. 2007. urtean 8 kexa edo jaso ziren Tolosaldean. Aurretik, aldiz, 40 kexa bideratu ditugu. Horietatik gehienak administrazioek euskaraz lan egiteko jartzen dituzten oztopoekin lotutakoak badira ere, herrietan jarriko ditugun postontzien bidez, espero dugu herritarren kexek ere gora egitea.

## Eskualde mailan, zein eremutan ematen dira hizkuntz urraketarik ugarienak?

2007ko datuei erreparatu gero, Osakidetza izan da kexa gehien jaso zituen erakundea.

UEMAko herritarra bazara, aukera hauek dituzu kexa jartzeko:

### Herrietako buzoiak

Herri askotan dagoeneko jarrita dago buzoia, eta buzoia bakoitzaren ondoan, inprimaki batzuk izango dituzu, sinple-sinpleak, zuri gertatutakoa bertan adierazteko. Inprimakia betetzeko zailtasunik izanez gero, udal langileak laguntza emateko prest egongo dira.

### Telefonoak

Buzoiez gain, kexak telefonoz ere egin ahal izango dituzu, bai UEMAren bulegora deituta (943 260 372), bai Euskararen telefonoa erabilita (902 194 332).

### Web gunea

Internetez ere egin daiteke kexa, [www.euskararen-telefonoa.com](http://www.euskararen-telefonoa.com) helbidean.

Pediatra dela, emagina dela... herritar euskaldunari behin eta berriro ukatzen zaio osasun-zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea. Horiakin batera azpimarragarria da RENFEk jasotako kexak, bai bozgorailu bidez zabalitzen dituzten mezuak gaztelania hutsean direlako, edota txarteldagiko langileak zerbitzua euskaraz ematerik ez duelako. ■

**ALDATZ Kristaldegia**

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispiak  
Beirate artistikoak  
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
[kristaldatz@euskalnet.net](mailto:kristaldatz@euskalnet.net)  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



**BENTA ALDEA**

JATETXEA

Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

Iurre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA



# Anaien arteko elkartasuna

DIRU LAGUNTZEZ HARATAGO, KULTUR ABERASTASUNAREN ITURRI DIRA HERRIEN ARTEKO ANAITZEAK

Gorka Otaegi

**L**ehenik eta behin, herri bat anaitzea zer den argitzea komeni da. Besteak beste, “Pertsonak elkartzea. Estatuak, gobernuak... elkartu beharrean, herri horietako pertsonak, elkarrekin... bat egitea” dela dio Joxe Agustín Arrieta Tolosako udaleko gizarte zerbitzuetako zinegotziak. Bat egite horretan, “elkar ezagutuz eta pertsonak elkarrekin duten adeitasuna indartuz”, herriek beren kideen “ekin-tza eta aberastasun kultural, komertzial, gastronomiko... en berri izan eta hauek elkarrekin

**Azken urteotan herrien arteko anaitzeak asko zabaldu diren arren, eskualdean Tolosak eta Ibarrek soilik dituzte ofizialki anaitutako herriak. Alkizako udala ere anaitze bat gauzatzeko ahalegiak egiten ari da. Erakundeek ipintzen dizkioten oztopoak direla eta, ez aurrera, ez atzera dago. Dena den, elkartze hauek, askotan, bolada bateko kontua izaten dira. Jarraipenik eman ez eta ahaztuta geratu izan baitira.**

konpartitzen dituzte”. Horrez gain, herri bakoitzak garrantzitsutzat dituen baloreak ere konpartitzen dituzte.

## TOLOSAK ANAI UGARI

80ko hamarkada hasieran anaitu zen lehen aldiz Tolosa, Frantziako Bondoufle herriare-

kin izan zituen harremanek ekin zienenean. Harreman kulturalak izan ziren, Eresoinka abesbatzak Paristik 100km hegoalderantz kokatzen den herri honetan kantaldia eskaini behar zuela eta sortutakoak. Baina, erlazio hau “nahiko azalekoa” izan zen. Handik urte batzuetara, 1989 urte

inguruan, Iparraldeko Ustaritz herriaren anai izatea erabaki zuen Udalak. “Anaitze euskalduna izan zen hau, euskararen ingurukoa: Iparraldeko euskara, gipuzkera... arlo horretan gauzatu zen”. Hirugarren anaitzea 1996. urtean sinatu zuten Mexikoko Zacatecas herriarekin. “Mexiko DF tik 600 bat km iparralderantz dagoen herri honekin harremanak, batez ere kultura arlokoak, hasi zituzten, baina hor gelditu ziren. Ez ziren gehiegi sakondu”. Saharako Bir-Lehlu herria da Tolosak izan duen azken anaia. Iazko otsailean senidetua. “Aipatutako anaitze kultural hauetan ez da laguntza

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

ekonomikorik eman, Saharako herri honen kasuan izan ezik". Bir-Lehlu-rekin du, hain zuzen, Tolosako udalak, anaituta dituen herri guztien artean harremanik estuena, Arrietaren aburuz.



Anaitutako herri hauen egoera ekonomiko eta sozialak, oso desberdinak dira elkarren artean alderatzen baditugu. Esate baterako, "Mexiko-ko Zacatecas herriak edota saharar kanpamendu honek dauzkaten azpiegiturak, ezin dira guk dauzka-gunekin alderatu. Baina Frantziako Bondoufle hiri hau gurekikoa da azpiegitura ekonomiko eta bestelakoei dagokienez", dio zinegotziak. Beraz, anaitzeak ez dira gurea baino egoera ekonomiko okerragoa duten herriekin soilik egiten. Gainera, "herri horien arazo ekonomiko eta politikoak, askotan, herri horiek kokatuta dauden estatuenak direnak, konpondu ahal izateko eskumenetatik kanpo gertatzen dira udalak". Ondorioz, helburua gehiago izaten da "harreman kulturalak, komertzialak eta, zenbait unetan, laguntza ekonomiko puntualak" sustatzea.

## ALQUIZAR, ALKIZAREN ANAIA

Alkizan, duela hamar-hamabi bat urte hasi ziren anaitzean pentsatzen, Kuban Alquizar izeneko herri bat bazela jakin zutenean. Honela dio Jose Mari Aranzabe Alkizako udaleko zine-

gotziak: "Duela hamar hamabi bat urte izan genuen elkar eza-gutzeko aukera (...) Alquizar-en urte asko lanean zermatzan eta jubilatzerakoan bertan bizitzen geratu zen donostiar ingeniari bat hango berri emanez etorri zitzaigunean". Ingeñari honek bul-tzatu zuen Alkizako udala anaitze prozesuari ekiteko. "Berak historial bat eraman zuen hara, herriaren sorreraren eta beste zenbait daturen berri ematen ziena, hemengo beste zenbait objektuekin batera". Horrez gain, Alquizar-etik, besteak beste, hango armarría ekarri zuela gogoratzen du Aranzabek. Hura izan zen lehen hartu-emana. Baina ingeniaria hil egin zen, eta ondorioz, erlazioa bere horretan geratu zen.

Gerora, harremana berreskuratze asmoz, bilera batzuek egiten hasi ziren Tolosaldeko Alkizan, eta "norbaitek Alquizarre-ra zerbait eramatea" helburu

hori lortzeko bide egokia izango litzatekeela iruditu zitzairen. Hori dela eta, udaleko dinamizatzailearen anaia Kubara joatekoa zela aprobetxatuz, berarekin harremanetan jarri eta batez ere papera eta eskola-materiala helarazi zizkien Alquizar-eko herritarrei. Anaitze prozesuarekin aurrera egiteko saiakerari dagokionez, ordea, "hango 'comisario político' delako batekin hitz egin zuen, baina ez zion kasu handirik egin".

2006. urtean egin zuten hurrengo saiakera Alkizako bost lagunek. Bidai bat egiteko aspal-di ari ziren dirua aurrezten, eta Kubako Alquizarre-ra joatea erabaki zuten. Udalak horren berri izan zuenean, gauza pila bat eman zizkien bertara eraman zitzaizuten: txapela, euskal makila... "Hango alkate eta gobernuko ordezkariekin, kultura arduradunarekin... egotea lortu zuten, eta baita beren posta elektronikoak ere, harremanetan jartzeko". Eskualdeko Alkizak, geroztik, saiakera dezente egin ditu, bai hemendik harremanetan jartzeko saiakerak eginez, eta baita Kubara bidaiatu duten herritarren laguntzarekin ere. "Baina, dirudienez, Kubako gobernuak, orain duen egoerarekin, anaitze hauek oztopatu egiten ditu. Ez du hauekin aurrera egiteko askatasunik ematen" dio Jose Marik. Nahiz eta Habanako probintzian kokatzen den herri hone-tako alkateak anaitzearekiko jarre-ra baikorra duen, senidetzea erabat gauzatu eta bi herrien arteko kooperazioari ekiteko, ezinbestekoa da "Asamblea Nacional del Poder Popular"ak Alkizako udalak "Comisión de Relaciones Internacionales" delakoari bidalitako idatzia onartzea. Horren zain jarraitzen dute une honetan.

Alquizar herria, esan bezala, Habanako probintzian aurkitzen da, Habanatik ehun bat kilometrorra hegoalderantz. "Hogeita zazpi bat mila biztanleko herria da. Herri handia eta

*"dirudienez, Kubako gobernuak, orain duen egoerarekin, anaitze hauek oztopatu egiten ditu. Ez du hauekin aurrera egiteko askatasunik ematen"*

J.M. ARANZABE

nekazaritzan oinarritua. "La huerta de la Habana" ere deitua" dio Aranzabek. Herri hori izan zen Sancho de Alkizak (Hondarribiko Akartegi auzoko "Alkizanea" baserrian bizi zenak) XVII. mende hasieran sortu zuena. Bertan izan diren alkizarren arabera, Tolosaldekoa baino herri handiagoa den arren, "50 urteko atzerapena" daramate gure bizimoduarekin alderatuz gero. Kubako gainerako lekuetan bezala, goi mailako ikasketak dituen jendearen proportzioa altua da. Hala ere, ondasun materialen premia larria dute: "Batez ere papera eraman izan diegu. Oso garestia da han eta ez daukate". Ordenadore eta idazteko makinaren premia ere azpimarratzen du alkizar zinegotziak.

## HERRI BATEKIN SENIDETZEKO IRIZPIDEAK

Aurreko kasuetan ikusi dugun bezala, udalek zein herrirekin senidetu erabakitzeko momentuan erabiltzen dituzten irizpideak gehiago izaten dira herritarrekin zerikusia duten egoera zehatzak ikerketa sakonak baino. "Batuetan, kasualitatezko irizpideak izaten dira (Bondoufle-ren kasuan, adibidez) edo herri horretan ezagunen bat dagoela..." dio Arrietak. "Hasieran, beti izaten da pertsona edo elkarteren baten kontua". Behin herri jakin batekin senidetzeko erabakia hartuta dagoenean "poliki-poliki, gauzatu egiten da udalean". Senidetze prozesu hauetan udal osoak hartzen du parte, gizarte zerbitzuen saila

## EUSKAL FONDOA

Euskal Herriko kooperazio deszentralizatua koordinatu eta laguntzeko helburuarekin sortu zen Euskal Fondoaren elkarteak 1996. urtean. Geroztik, elkarteak hegoaldeko lurraldeekin elkartasunezko harremanak bultzatzen dituzten hainbat proiektu eta esperientzia lokal hartu izan ditu bere baitan.

Euskal Fondoak proiektuak koordinatzeaz gain, bere partaideak (udalak gehienbat) elkartasunezko ekintzak egitera bultzatu ere egiten ditu, ahal den neurrian proiektuen autonomia eta lokalitasuna mantenduz.

Kooperazioaz gain, justizian oinarritutako bakean elkarbizitzea, berdintasuna, tolerantzia eta parte hartzea



bezalako baloreen lanketa eta zabaltzeaz ere arduratzen da elkarteak.

Euskal Fondoaren kideen artean, Tolosaldeko zenbait udal aurki ditzakegu: Denek heuren aurrekontuaren %1a bideratzen dute fondora. Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgoak hain zuzen. Gure eskualdeko udalak

honako proiektuak laguntzen ari dira Euskal Fondoaren bitartez: Kuban, Habanako Komunitateen garapen iraunkorrerako lurralde kudeaketarako sistema, ekialdean bizi diren adinekoentzako gizarte-eta osasun-zerbitzuen indartzea eta El Valle Herri Kontseiluan jarioak kendu eta sareak instalatzea. El Salvador-en, Segundo Montes komunitatearen ur hornikuntza eta Cusclatan-eko "Udalerri bidezkoagoak eta demokratikoagoak erakitzen" departamenduestratégia, eta Nicaraguan, San Carlos-eko ur beltzentzako sistema eraikitzea Proyecto Habitacional, Viviendas Progresivas eta Manantial auzoetan.

jaso dugu" dio alkizar zinegotziak.

Etorkizunari begira, anaitzei behar duten bultzadaxoa ematea dute helburu anaitutako hiru herriek: "Nahiko genuke, eta horretan ahalegintzen jarraituko dugu, Alquizar herriarekin hasita daukagun prozesua aurrera ateratzea. Hori da etorkizuneko gure erronka nagusiena", dio Jose Mari Aranzabek. Tolosaren kasuan, berriz, "ditugun anaitze hauek birplanteatu eta sakondu egin behar dira. Anaitzeek jarraipena eskatzen dutelako, eta Tolosan bere horretan utzita daudelako, saharar herriarena salbu. Hartutako konpromisoak bideratu, sendotu eta adeitasun hori bultzatu beharra dago". Agian, irtenbidea anaitzeak "tematizatzea eta gehiago instituzionalizatzea" izango litza-tekeela ere aipatu digu Arrietak.

Azkenik, anaitzearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute Tolosa, Alkiza eta Ibarroko udalbatik. "Herri guztiek irekita egon behar dugu besteekiko. Izan ere, pertsonak, alde bate-tik, bere indibiduo izaera du. Eta indibiduo izaera hori besteekin, harreman sozialetan, landu behar da. Baita gure muga geografikoetatik kanpo ere". Harreman horiek kulturalak izateaz gain, solidarioak ere izan behar dutela dio Tolosako gizarte zerbitzuetako zinegotziak. Horrez gain, anaitzeak "kulturalki oso aberasgarriak" direla uste dute Alkizan, "bai guretzat eta baita anaitutako herriarentzat ere. Beste tokietan nola bizi diren, zein ohitura dituzten... jakiteko aukera" ere eskaintzen baitute. Eskualdeko beste udalek jarraitu beharreko eredua, dudarik gabe. ■

"akuilatze lanak", hots, anaitzeen sustatzeaz arduratzen delarik. Eta "zenbait pauso markatu ondoren, handik urtebete edo bi urtera, anaitze hori izenpetu egiten da" dokumentu bat sinatuz. Dokumentu honetan zehaztu ohi dira anaitzearen nondik norakoak (zein ekintza egingo dituzten elkarrekin; diru-laguntzarik badago, hauek nola bideratu...).

Dena den, udalek beste herriekin izaten dituzten harremanak ez dira anaitze hauetara soilik mugatzen. Tolosako udala, esaterako, 40 bat gobernuz kanpoko erakunderekin harremanetan dago. "Batez ere Erdi eta Hego Amerikan lanean ari direnak: Honduras, Nicaragua, Salvador, Guatemala...". Erakunde hauek diruz laguntzeko, Tolosak aurrekontu orokorretan ehun

*"Anaitze kultural hauetan ez da laguntza ekonomikorik eman, Saharako Bir-Lehlu herriaren kasuan izan ezik"*

J.A. ARRIETA

mila eurotik gorako dirutza gordetzen du urtero (Euskal Fondoari ematen dizkion 600.000 euroez gain).

Alkiza bezalako herri txikien kasuan, aurrekontuak ezartzen dizkien oztopoak direla eta, ahalegin handiagoa suposatzen du horrelako proiektuak ekonomikoki laguntzea. Hala ere, horrek ez du eragozten herritarrak inplikatu dauden zenbait proiektu bultzatzea. Jose Mari Aranzabek

gogorarazi dizkigun Chileko Pitrufquen herriko eskolari emandako diru-laguntzak, urtero Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatzen duen produktu bilketetan parte hartzea, une honetan "alkizar batek Nafarroako Unibertsitatearen bidez Ekuadorreko amazonako tribu batzuekin egin nahi duen proiektua bultzatzeko liburuxka batzuk erostea" edo oraindik aztertze-ke duten Zizurkilgo udalbatik bidalitako Segundo Montes-eko proiektuan kolaboratzeko eskaria dira horren erakusgarri. Hau guztia egin ahal izateko, udaleko aurrekontuko diruaz gain, erakunde eta enpresa pribatuak emandako laguntzak (bidaltzeko materiala, adibidez) ere eskuraz izaten dituzte Alkizako udalean. "Normalean, eskatu izan diegun guztietan erantzun ona



**Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA**



**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-aseguruak  
Kotxe-aseguruak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-aseguruak  
Denda-aseguruak  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

**TOLOSA >>>** 50. URTEURRENA OSPATZEKO, UZTURRETIK MENDIRA LIBURUA KALERATU DU ALPINO UZTURRE ELKARTE

# “Mendian sartu arte galtzen azpitik

*“Gogoratzen al duzu Igarondo zinean egindako bilera hura?”, galdetu dio Pepik Pedrori, eta jarraitu du: “Garai hartan asko ginen taldean mendira joaten ginenak, baina ez genuen lokalik planak egiteko; ezkaratzetan biltzen ginen horretarako, edo igandetan mendira joaten ginenean tontorrean bertan egiten genituen hurrengo lauzpabost igandetarako planak. Baina astegunean zehar biltzeko txokorik ez genuen, eta lokal baten beharra geneukan”. Behar horrek bultzatu zuen orain berrogeita hamar urte Alpino Uzturre mendi elkartearen sorrera. Pepi Gorostidi eta Pedro Lesaka bertako kide dira hasiera-hasieratik, eta beraien eskutik egin dugu mende erdi bat atzera.*

*Amaia Goikoetxea D.*

**B**i lokal aurkitu zituzten, eta bietako zein aukeratu erabakitzeke, Igarondo zinean bildu ziren. “Leporaino zegoen zinea, bete-bete eginda, azer nola-ko jendetzal”, gogoratu du Pepik. Lokal horietako bat gaur egun Gudari kalean dutena zen, eta bestea Monteskun zegoen. Lehenbizikoa egokiagoa zen, baina baita garestiagoa ere, eta dirua



Zigor Oiarbide, Pepi Gorostidi, Pedro Lesaka eta Santi Saizar.

arazozen garai hartan. “Inork zentimorik ez genuen, eta bilera hartan, dirua nola atera pentsatzen ari ginela, hara non bota zuen batek: ‘Bueno, podríamos coger ese local y luego ponerlo bonito con cortinas de flores y así...’ Ez genuen pezetan batera, ez genekien zer egin lokalak ordaintzeko dirua lortzeko, eta bestea kortinetan pentsatzen! Eta atzetik beste batek erantzun zion: ‘¡Si hombre, que nos vendrán muy bien cuando bajemos del monte para limpiarnos las botas!’ Beti oroituko naiz horretaz”, dio Pepik barrezka. Bilera hartan, dirua lortzeko hogeituroko akzioak sal-

gai jartzea erabaki zen, eta ahal zutenek akzioak erosiz bildu zen dirua. Behin lokalak hartuta, Alpino Uzturre mendi elkarteak sortu zen.

“Ia astebururo egiten genituen irteerak, eta zubi guztiak aprobetxatzen ziren”, azaldu digu Pepik. “Autobusak antolatzen genituen; trabesiak egitea asko gustatzen zitzaigun, eta autobusak leku batean uzten gintuen eta beste batean jaso”. Hori bai, ondo pentsatu behar zen motxilan zer sartu, ahalik eta pisu gutxien eramateko. “Orduan janaria orain baino pisu gehiagokoa izaten zen. Melokotoi

poteak, alkoholarekin funtzionatzeko zuten sukalde nazkagarri hura, batzuetan pizten zena eta besteetan ez... Eskerrak gero butano txikiak agertu ziren...”, oroitu du Pedrok.

Eta uda iritsitakoan, Pirinioetara, garai hartan kotxerik ez zegoenez, ez baitzegoen Pirinioetara astebururako joaterik. “Orduan Pirinioetara joatea gaur egun Alpeetara joatea bezala zen”, dio Pedrok. “Hori bai, Pirinioetara Euskal Herrian makinan bat ordu ibilita joaten ginen”, gaineratu du Pepik.

Gaur egun ulergaitza dirudien arren, garai hartan emakumeek

**IRATZAR**

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar galetan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

**ibarra**  
Argi-Lanak

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60

**jarri**  
zure publizitatea  
hemen

URTEAK

# “Gona eraman behar izaten genuen”

gonarekin atera behar izaten zuten, baita mendira ere. “Batzuetan falda-pantalón delakoak eramaten saiatzen ginen, beste batzuetan galtzak erremangatu eta hauen gainetik gona janzten genuen, herriatik atera eta mendian sartu arte”, azaldu digu Pepik. Behin San Frantziskoko elizatik bota nahi izan omen zuten galtzekin joan zelako. “Goizeko mezetara joanez gero ez zizuten ezer esaten, jende gutxiago joaten baitzen. Behin, ordea, Ulin babarrun-jana egin eta arratsaldeko mezetara joan ginen zuzenean, eta sarreran zegoen fraileak berehala geldiarazi gintuen: ‘¿Adónde vais?’ Eta guk, meza entzuteraz gindoazela. ‘Esto no se ha visto ni en Fátima ni en Lourdes!’ Eta esan nion: ‘Aizu, goizeko 6:00etako mezetara etortzen garenean inork ez digu horrelakorik esaten. Eta orain, jende aberatsagoa etortzen delako, galtzekin gaudela eta bota egin nahi al gaituzu? Lasai, bagoaz, eliza gehiago ere badaude’. Eta Corazonistetara joan ginen”.

## TALDEKO GIROA GALTZEN

Berrogeita hamar urte ez dira alferrik pasa. “Gaur egun, ekipamendu aldetik askoz ere material hobea dago, hobeto prestatua joan zaitezke mendira”, dio Pedrok. “Bestetik, mendiko giroa asko aldatu dela esango nuke. Lehen egun guztirako joaten ginen Igaratzara, bertan bazkal-

du, eta arratsaldean buelta etxera. Eta bazkaltzeko pare bat ordu hartzen genituen, lasai ederrean egoteko. Orain horrelakorik ez dago. Gaur egun jendea korrika dabil, ordulariak asko markatzen du gaur egungo mendiko giroa”.

“Nik uste dut neurri batean autoek ekarri zutela aldaketa”, zehaztu du Pepik. “Gure taldeko batek autoa erosi zuenean, autoz mugitzen hasi ginen. Baina berehala konturatu ginen alfertzen ari ginela. Autoarekin joanez gero eguraldi oso txukuna ez bazegoen, mendira joan beharrean turismoa egin zenezakeen. Edo pista bataurkitu eta pista amaitu arte autoz jarraitzen zenuen. Horregatik, mendirako baztertu egin genuen autoa. Dena den, ezinezkoa izan zen haren eraginarengandik ihes

egitea. Jendea kotxeak erosten joan zen heinean, sakabanatu egin zen, bakoitza bere aldetik mendira joaten, alegia. Eta gaur egun horrelaxe da, taldeko irteera horiek galtzen ari dira. Gainera, jendea ateratzen da, baina ez da lehen bezala ibiltzen. Lehen goizeko 6:30etako trenetan Otzaurtera joaten ginen, Otzaurteko apeaderotik San Adrianera igo, handik Aizkorri-  
ra, tontorretik Arantzazura jeitsi eta handik Brinkolara. Tre-  
na hartu eta etxera. Ibili? Pila bat!”

Pedroren ustez jendea ibiltzen da orain ere, baina ibilbide bera askoz azkarrago egiten da. “Lehen, egun guztirako joaten zinen Aizkorri-  
ra, han eguna pasa, eta bueltan etxera. Orain hori goiz batean egiten duzu”. Elkarteko kide den Zigor Oiar-

bide gaztea ere ados agertu da Lesakarekin. “Lehen Aizkorri bakarrik egiten zen denboran orain Aizkorri eta bere ondoko beste mendi bat egin nahi dituzu, edo Aloñamendi aldera joan...”.

Orain hilean behin antolatzen ditu irteerak Alpino Uzturre mendi elkartek. “XIV orduko martxa tokatzen den urtean erantzuna handia izaten da, jendeak prestatu egin nahi izaten baitu. Baina bestela, autobusa betetzeko lanak izaten ditugu”, aitortu digu Zigorrek.

Gizartearekin batera aldatu dira mendiko ohiturak ere. Individualistagoak bihurtu gara. Berrogeita hamar urteren ondoren, Alpino Uzturreklanean jarraituko du, Pepi eta Pedro bezalakoek egindako esfortzua ezerezean gera ez dadin. ■



Alpino Uzturreko lokalaren inaugurazioko irudia.

## SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874  
943 653 985 943 806 020  
Santa Luzia, 1 TOLOSA

# 1936KO GERRAKO OROITZAPENAK

TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko Hitzako  
bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu  
80€

10 liburu  
140 €

Salmenta puntuak:  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
Hitzako bulegoetan, Tolosako Aranburu,  
Babel eta elkar liburu dendetan eta  
Villabonako Basajaun liburu dendan.



**ARANZADI**

zientzia elkarteak · society of sciences  
sociedad de ciencias · société de sciences

  
**galtzaundi**  
GALTZAUNDI ETORRI

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**hitza**



# Olentzeroren opariak Galtzaundiko bazkideentzat



**Elena Baraibar**  
(Tolosa)  
Pirritx eta  
Porrotx  
pailazoen  
*Eskerrik asko*  
dvd-a eta  
*Piratak* diskoa

**Miren Ostra**  
(Tolosa)  
Pirritx eta  
Porrotx  
pailazoen  
*Eskerrik asko*  
dvd-a eta  
*Piratak* diskoa



**Izaskun Inza**  
(Donostia)  
*Mari Ttipia*, Sua  
edizioak-en ipuin  
bilduma

**Gema Garmendia**  
(Alegia)  
*Xagu Xar* ipuin  
bilduma



**Maria Pilar Mujika** (Tolosa)  
*Eta zer saileko*  
bi ipuin

**Mitxel Lakunza**  
(Tolosa)  
*Harry Potter*  
eta herioaren  
erlikiak



**Iñaki Olano**  
(Anoeta)  
Miren Agur  
Meaberen *Zer da  
ba, maitasuna*  
liburua

**Joxetxo Narbaiza**  
(Tolosa)  
*1936ko gerrako*  
*oroitzapenak*  
*Tolosaldea eta*  
*Leitzaldea*  
liburua



**IBARRA >>>** IBARRA GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETAK JARRAIPENA IZANGO DU DATORREN URTEAN

# Ibarra Galtzakomik lehiaketare

*Hasierak zailak izaten dira, baina Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketaren lehenengo aldia bikaina izan da. Eskualdetik eta Euskal Herriko probintzia ezberdinetatik bidalitako 100 komikitik gora iritsi dira Galtzaundira. Epaimahaiak lan zaila izan du komiki guzti horien artean saridunak aukeratzen. Aurkeztutako lanen maila ikusita, aurreikusi baino sari gehiago banatu dira. Abenduaren 12an egin zen Ibarako Benito Izagirre Kultur Etxean I. Ibarra Galtzakomik Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.*

*Erredakzioa*

**I**barako Benito Izagirre Kultur Etxeko aretoa Euskal Herriko komikigile gazteen topaleku bilakatu zen abenduaren 12ko sari banaketa ekitaldian. Sarituek, euren senitarteko eta lagunek, epaimahaikideek eta lehiaketaren antolatzaileek, aretoa bete zuten giro atsegin bat sortuz.

Joseba Antxustegietxarte, Galtzaundi hamabostekariko komikigile eta Ibarra Galtzakomik lehiaketako epaimahaikideak aurkeztu zuen ekitaldia. Lehiaketak oso erantzun ona izan duela adieraziz hasi zuen aurkezpena: "Epaimahaia oso gustura dago jasotako komiki mordoarekin eta jendeak hartu duen lan guztiarekin. Erabakia hartzea ez da batere erraza izan". 100 lan baino gehiago aurkeztu dira lehiaketara. Hasiera batean, lanak bi maila ezberdinetan sailkatzea



Ibarako Kultur Etxeko aretoa leporaino bete zen sari banaketa ekitaldian.

aurreikusten zen: 18 urtetik beherakoen mailan eta 18 urtetik gorakoenean. Etxeko txikienek ere euren komikiak aurkeztu dituzte ordea. Hori ikusita, eta benetan lan onak aurkeztu dituztenez, antolatzaileek 10 urtez azpiko parte hartzaileen artean beste sari bat ematea erabaki zuten. Sariekin batera, hainbat aipamen berezi egin dira. Epaimahaiaren izenean, Antxustegietxarte, Ibarra Galtzakomik lehiaketari jarraipena eman behar zaiola adierazi zuen. Ibarako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak, datorren urtean komiki lehiaketaren bigarren aldia antolatzeko borondatea erakutsi zuten.

## SARIDUNAK ETA SARIAK

Aretoan urduritasuna eta ilusioa nabari ziren saria jaso behar zutenen aldetik. Oholtzara igo zen lehena Leire Rey, zazpi urteko ibartarra izan zen. *Lagundu! Asto bat!* lanarengatik aipaman berezia egin zion epaimahaiak.

Iñaki Martiarena, Mattin-ek hiruzpalau komiki eman zizkion sari gisa. Ondoren, 10 urtetik beherakoen mailan saria jaso zuen Markel Galbeteren txanda iritsi zen. 10 urteko olaztiarrak (Nafarroa) *Amona Joxepa espazioan* lanarengatik jaso zuen saria. Itziar Jauregi, Ibarako euskara zinegotziak eman zion komikiz betetako poltsa.

11 eta 17 urte artekoen sariak eman aurretik, bi aipamen berezi egin nahi izan zituen epaimahaiak: Irene Lopez (12 urte) eta Maria Lopez (16 urte) ibartarren *Eulia nuen maite* eta *Super oilaloka* izan ziren aipatutako komikiak. Maila honetako 2. saria, Pablo Azurza, 15 urteko altzotarrak eskuratu zuen *Ardiak* lanagatik. Jose Luis Longaron margolariaren eskutik jaso zuen 200 euroko txkea. Maila honetako irabazlea, Beñat Iturbe, 15 urteko iruñearraren *Olentzero izan nahi zuen mutila* izeneko komikia izan da. Honek 400

euroko diru-saria jaso zuen Longaronen eskutik.

Azkenik, helduen mailako saridunak aipatzeko ordua iritsi zen. 2. saria, Hernaniko Aina-ara Azpiazuk eskuratu zuen *Argi ibili* komikiarekin. Iñaki Epelde margolariak eman zion honi 400 euroko diru-saria. Nagusien mailako lanik onena, Javier Navarro tolosarraren *Kriantzaren problematikak* izan da. Egileak ezin izan zuen sari banaketara etorri, eta bere ordeztu, bere aitak jaso zuen saria Tomas Ugaldebere, Ibarako euskara teknikariaren eskutik; 600 euroko txkea.

## KOMIKI LEHIAKETEN BEHARRA

Saria besapean zutela eta ekitaldiaren osteko lunch-ean mokadutxo bat janda, gustura joan ziren saridunak etxera. Markel eta Pablorentzat, komiki lehiaketa batera aurkeztu diren lehenengo aldia izan da. "Lan asko aurkeztuko zirela pentsa-

# en lehen aldia arrakastatsua

tzen nuen eta horregatik ez nuen irabazterik espero”, bat egin zuten biek. Ainara, Beñat eta Javierrek berriz, komiki lehiaketetan parte hartzeko ohitura dute. “Nik lau orri inguruko komikiak egiten ditut, eta lehiaketaren bat agertzen denean aurkeztu egiten ditut”, azaldu zuen Ainarak. Javierrek ere era horretan funtzionatzen du. “Lehiaketaren bat dagoela jakiten dudanean aurkeztu egiten naiz. Zumaian eta Donostian antolatutako lehiaketetan bigarren saria lortu izan dut, baina hau izan da lehenengo saria eskuratu dudana lehenengo aldia”, esan zuen. Beñatek ere inoiz ez du saririk irabazi eta ilusio handiz hartu zuen berria.

Bestalde, saridun guztiek nabarmendu zuten komiki lehiaketak antolatzearen beharra. “Ni interneten begira aritzen naiz eta urtean oso komiki lehiaketa gutxi antolatzen dira”, esan zuen Markelek. Ainara Azpiazu, Portugaleten, Basaurin eta Elgoibarren antolatzen diren komiki lehia-



Leire Rey saria jasotzeko unean.

ketak ezagutzen ditu. Hauetaz gain, ezer gutxi dagoela esan du: “Pintura, literatura eta argazki lehiaketa ugari egiten dira. Komiki lehiaketak ordea, esku-hatzekin zenbatu daitezke. Iruditzen zait, komikia bazter-tutako generoa dela”. Hala ere, asko dira euren kaxa komikiak egiten dituztenak. “Komikigi-

le edo marrazkilari bezala bizitza ateratzea oso zaila da, horrelako lehiaketek motibatzen gaituzte”, aipatu zuen Javier Navarrok. Bere hitzetan, komiki lehiaketa gutxi egoteaz gain, gero eta komiki aldizkari zein liburu gutxiago editatzen dira.

Parte hatzaileen iritziarekin bat egiten dute, Galtzaundi

Euskara Taldeak eta Ibarako Udalak. Euskaraz egindako komikia sustatzeko xedearekin, datorren urtean Ibarra Galtza-komik komiki lehiaketaren bigarren aldia antolatzeko borondatea erakutsi dute. Bien bitartean, lehenengo aldiko irabazle zein parte hartzaile guztiei, Zorionak! ■

## zozketa bai euskarari



Bai Euskarari Ziurtagiria duten Tolosaldeko saltoki, enpresa eta era guztietako entitateei leialtasuna eskertu nahian zozketa bat jarri genuen abian. Honako hauek izan dira saridunak:

1. Saria: bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean **7.726**.
2. Saria: Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat. **12.200**.
3. Saria: Aralar kirolak dendan, forro polar bat. **17.420**.
4. Saria: Klisk argazki dendan, argazki sesio bat. **3.593**.

Ordezko zenbakiak ere atera dira, hilabete bateko epean saridunak aterako ez balira erabiltzeko. Saridunek Galtzaundira joan beharko dute txartelarekin urtarilaren 3a baino lehen.

# Rock doinurik gogoangar

ABENDUAREN 23AN, TOLOSAKO KALEETAN AURKEZTUKO DU BONBERE



*Bonberenea Txarangak, Euskal Herriko kaleetan ez ezik, grabazio-estudio batean ere, jai giroa pizteko gaitasuna duela frogatu zuen 2006an kaleratutako diskoan. Aurten berriro sartu dira Bonbereneako estudioan, eta Rocka eta urrezko komona, euren bigarren lana grabatu dute. Izenburu "xelebre" horren pean, rockaren historiako hainbat kantu eza-gun bersionatu eta biziberritu dituzte. "Mitikoak diren kantu horiek bizirik mantendu nahi ditugu", adierazi dio Galtzaundiri, Jon Arruebarrenak, Bonberenea Txarangako kideak. Kantu horiek jo ditzaten, eta aurrerantzean ere entzunak izan daitezen, diskoko abesti guztien partiturak biltzen dituen liburua ere argitaratuko da. Abenduaren 23an aurkeztuko dute diskoa Tolosako kaleetan.*

Erredakzioa

## **Hasteko, egiguzu Bonberenea Txarangaren aurkezpen bat.**

2003ko abenduan hasi ginen. Bonbereneak deitu zigun, urteurrenean zerbait berezia egin nahi zutela esanez. Hamar bat lagun elkartu ginen, jo genuen eta kitto. Hor amaitu zen dena. San Joanetan berriro deitu ziguten, antzeko zerbait egiteko. Orduan jende gehiago bildu ginen. Eta horrela, pixkanaka biltzen joan ginen. Era honetan hasi zen guztia. Orain 40 lagun inguru gara.

## **Bonberenea Txarangak badu zerbait berezia gainontzeko txaragetatik bereizten duena. Zer dela esango zenuke?**

Bonberenea Txarangaren ezaugarri nagusia, nire ustez, gaztetasuna da. Denak gazteak gara. Gero, abesti ezberdinak jotzen ditugu: guri gustatzen zaizkigunak eta baita guk sortutakoak ere.

## **Kaleratzear duzue Rocka eta urrezko komona diskoa. Honen aurretik ordea beste lan bat grabatu**

## **zenuten. Alde handia al dago bi lan hauen artean?**

Lehenengo diskoa egiteak eta bigarren hau kaleratzek sortu digun ilusioa bera da. Bi disko hauen artean aldatu dena planteamendua da. Lehenengo diskoa bat-batean atera genuen. Bonberenea kantuarren bertsioa egiteko eskatu ziguten, eta hortik abiatuta diskoa atera zen. Bigarren lan hau ordea, elaboratuagoa izan da. Denbora hartu dugu pentsatzeko.

## **Zer aurkituko dugu bigarren lan honetan?**

Rock kantuen bertsio bilduma bat da. Zerbait indartsua egin nahi genuen. Horregatik jo genuen rock-era. Parrandan, tabernetan, etxeko dikosetan entzuten diren abesti mitiko horiek bizirik mantendu nahi ditugu txarangaren bidez.

## **Bertsioak ez ezik, zuek sortutako kantu bat ere bada...**

Bai. Diskoko azkeneko abestia guk sortutakoa da. Diskoa nahiko gogorra da, abesti roc-

keroak ditu, eta lasai amaitu nahi genuen, ikutu glamuroso bat emanez. Rock sinfonikoko abesti bat egin genuen, nahiko lasaia. Zea Mayseko abeslaria, Aiora, prest agertu zen kantuan kantatzeko. Oso gustura geratu gara.

## **Zenbat pertsonak hartu duzue parte diskoaren ekoizpenean?**

Txarangako 35 kide inguru egon gara. Grabaketatetan beste bi pertsona aritu dira, kolaboratzaileak 8 inguru izan dira, eta gero, jende asko aritu da laguntzen.

## **Jende asko mugitu beharrik zaildu egingo zuen ba prozesua...**

Bai, zaila izan da. Lan dextente egin behar izan dugu. Lehenengo diskoa bukatu genuenean, gustura geratu ginen lanarekin, baina gehiago nahi genuen. Arrak koxk egin zigun. Duela pare bat urte hasi ginen bigarren diskoa ateratzeko planteamendua egiten. Duela urte t'ardi kantuarren entzuten hasi ginen, aukeraketa egite aldera.

# rrienak biziberritzen

BERENEA TXARANGAK ROCK-AREN URREZKO KOMUNA DISKO BERRIA.



Kantuak aukeratu ondoren, hauen partiturak egin genituen. Gero entsaioak etorri ziren eta azkenean grabaketa-estudiora sartu ginen. Grabazioa hiru fase ezberdinetan egin dugu: lehena maiatzean egin genuen, bigarrena ekainean eta hirugarrena irailan. Prozesua luzea izan da, jende askok parte hartu duelako bereziki. Horretaz gain, kontutan hartu behar da, denak gazteak garelako, eta ez garelako musikari profesionalak.

**Kantuak aukeratzea ere ez zen bala erraza izango? Zein irizpide erabili duzue?**

Zaila izan da kantuak aukeratzea. Kantu mitikoenak eta guri gehien gustatzen zaizkigu-

nak aukeratu ditugu. Kantu bakoitzak txarangara egokitze-ko ematen dituen aukerak ere kontutan hartu dira. Hasiera batean, taldetxo bat hasi ginen kantuak entzuten. Zerrenda luze bat egin genuen, eta gero, hortik kantuak baztertzen joan ginen. Kantu mordoak geratu da kanpoan. Agian aurrerago egingo ditugu. Guztira hamaika kantu dira; hamar bertsioa eta guk sortutako kantua.

**Lana izan da bai, baina lortutako emaitzak balio izan du ezta?**

Emaitzarekin oso gustura gaude. Baina bereziki, gustura gaude, denok lan asko egin dugulako, bakoitzak bere ekarpena egin duelako disko honetan.

**Diskoarekin batera liburu bat ere kaleratu behar duzue. Zer dakar liburu horrek?**

Diskoan bildutako kantuen partiturak bildu ditugu. Jendeak kantu horiek jotzeko aukera izan dezan nahi dugu. Azken batean, hori da abesti ezagun hauek bizirik mantentzeko modua. Hala ere bi eskaintza ezberdin egiten ditugu: soilik diskoa erosteko aukera dago batetik, eta bestetik, diskoa, dvd-a eta partituren liburua biltzen dituen "pack" bat egin dugu. Dvd-an, bideoklip bat agertzen da.

**Rocka eta urrezko komona: hain titulu xebleak azalpen bat izan behar du...**

Bai, izenburu kurioa da. Berez txiste bat da. Umoretik jo nahi izan dugu. Baina titulu ez da soilik umorean oinarritzen. Esanahi sakonagoa du eta hori diskoan topatuko du entzuleak. Ez noa pistarik ematera.

**Zertan erreparatu behar du entzuleak disko hau entzutean?**

Interesgarriena sonorida-dea da nire ustez. Oso berezia da. Instrumentazioa nola egin den ere kurioa xamarra da. Jendea diskoa ezagutzera gonbidatzen dugu noski, baina hortik haratago, gure Txaranga proiektua ezagutzera ere gonbidatu nahi ditugu denak.

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

**ZALBIDE**

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel.: 943 652 176

**ARTESANATO**  
**ARTE TAILERRA**  
HAURRAK ETA HELDUAK • INFANTES Y ADULTOS  
Abenduaren 22, 23, 29 eta 30ean gabonetako tailer berezikiak  
arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.  
TOLOSA • Kale Nagusia 16 • Tlf: 677340685



**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

**Mota guztietako lanak:**  
Granitoan marmolean eta  
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Saila, 1 • URNIETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

# Eskualdeko txirrindulariak ma

ITXASO LEUNDA, OXEL LEUNDA ETA JOSU AGIRRE TXIRRINDULARIEK DENBORALDI HON

Leire Zubeldia

**A**braham Olano Espainiako Itzuliaren aurkezpen ekitaldiaren bezperatan harrapatu zuen mahai-inguruak. Bera da Espainiako Itzuliko ibilbidearen ardura-dun nagusia. Hurrengo itzulia Holandan hasiko dela aurreratu zuen. Josu Agirre, berriz, Australiara joateko mailetak prestatzen ari da, urtarrelean doa taldekideekin batera hango itzulia lehiatzera. Bien bitartean, gogor ari da entrenatzen, nahiz eta eguraldiak gutxi laguntzen duen. “Gehienera egunean hiru ordu egiten ditut errepidean. Hori gimnasioarekin tartekatzen dut, barrurako hobia dago eta”. Oxel Leundak, nahiz eta afizionatu mailan ibili, profesionalen mailako entrenamendua egiten du. “Josu bezala, gehienera hiru edo lau ordu egiten ari naiz errepidean, eta gero, astean bi aldiz edo, gimnasioan aritzen naiz”. Itxaso Leunda, txirrindulari bezala egingo duen lehenengo denboraldia gimnasioan ari da prestatzen oraingoz. “Aste-an hiru edo lau egunetan gimnasioan aritzen naiz. Spinning-eko eskolak ere ematen ditut egunero pare bat orduz. Asteburuetan ateratzen naiz errepidera”.

Denak ere ilusioz ari dira denboraldiari begira lanean. Urduritasuna ere badago, bakoitzak bere helburuak jarriak baititu: Itxaso Leundak, Espainiako mailotarekin egin beharko du lasterka bere lehenengo urtean. “Ez dakit

Anoetako kirol astearen baitan, txirrindularitzari buruzko mahai-inguru interesgarria antolatu zen hilabete honen 11. egunean. Kirol honen inguruko hainbat gaiez hitz egiteko, eta lehengo eta oraingo txirrindularitza alderatzeko asmotan bildu ziren mahaiaren bueltan eskualdeko hainbat txirrindulari: **Abraham Olano, txirrindulari ohi anoetarra; Josu Agirre, Euskaltel Euskadin dabilen tolosarra; Oxel Leunda, Bidelan taldean ari den Hernialdeko txirrindularia; eta Itxaso Leunda, Debarrena Kirolgi taldean txirrindulari bezala estreinatuko den hernialdearra. Aitor Elduaen kazetariak gidatu zuen eztabaida.**



Aitor Elduaen, Itxaso Leunda, Oxel Leunda, Josu Agirre eta Abraham Olano.

nola moldatuko naizen, errepidean dena dut ikasteko. Triatloia utzi dut txirrindularitza burubelarri aritzeko, eta ea ba ondo irteten zaidan. Euskal Herriko eta Espainia mailako lasterketak ditut begiz jota, nazioartean, maila ikaragarria baitago, eta zereginik ez baitut edukiko”. Oxel Leundak urte berri honetan ikasten jarraitze du helburu. Gogor lan egiteko prest dago, afizionatu gehienek ametsa, bere ametsa ere baibaita, “gora pasatzea” alegia. “Oso zaila dago, baina saiatu gabe ez dut lortuko”. Oxelek ondoan zuen

eredua: Josu Agirre, Euskaltel Euskadiko txirrindularia. “Iazko egutegi beretsua izango dut. Mallorcan hasiko naiz. Denboraldi honetan ere taldearentzat lan egitea egokitu zait. Ni ondo banago, ea beste lasterketarako ere nirekin kontaktzen duten.

## TXIRRINDULARITZA, GOGORRA BAINA OSASUNTUA

Gogorra, disziplinatua eta sakrifizio handia eskatzen duen kirola bezala hartzen da txirrindularitza. Bestelako adjektiboak ere jarri zitzaiz-

kion mahai-inguruan bizikletari: “Osasunarentzako oso mesedegarria”. Hitz hauekin definitu zuen Abraham Olanok txirrindularitza. “Beste edozein kirol egitea, korrika edo frontoian aritzea esaterako, askoz ere txarragoa da. Bizikletan lehenengo bi egunetan sufituko duzu, ohitu arte. Gero, pedalei eragitea bezain erraza da. Kirol osasuntsu gisa, soilik igeriketarako irabazten dio”.

Adjektibo bat edo bestea jarri, mahaiaren eseritako hiru txirrindulariek ilusioz bizi dute txirrindularitza. Josu,

# ahai-inguruan

HONETARAKO DITUZTEN HELBURUEZ HITZ EGIN ZUTEN ANOETAKO MAHAI-INGURUAN

Itxaso eta Oxel gazteak izanik, parrandak, lagunak eta denbora libreka sakrifikatzen dute bizikletari emateko. "Txirrindularitzak asko kentzen dizu baina eman ere asko ematen dizu", dio Oxelek. "Nik ez dut inbidiarik edukitzen, festara ezin dudalako aterra edo lagunekin mendira joaterik ez daukadalako. Gauza guzti horiek denboraldia amaitu ostean egiten ditut", jarraitu zuen Josuk.

## AURREKO MENDEKO ETA GAURKO TXIRRINDULARITZA

90. hamarkadako txirrindularitza bizitu zuen Olanok. "Ordutik hona asko aldatu al da?" galdetu zion moderatzaileak. "Lasterka egiteko modua antzekoa da. Prestakuntza eta teknika dira aldatu direnak. Orain garapen handiagoak erabiltzen dira, eta prestaketari dagokionean, kilometro gutxiago egiten dituzte".

Eztabaidagai hartu zen baita ere, horrenbeste hauts harrotu dituen "pinganillo" edo entzungailua. Abrahamek, entzungailurik gabe egin zituen bere lehenengo denboraldiak, baina erretiratu baino lehen egokitu zitzaion bere menera jartzea. Oxelek ere ezagutzen du. Afizionatuetan, eliteen mailan erabiltzen

da bakarrik, iaz, 23 urtez azpiko mailan eta lehendakari mailan erabiltzea debekatu egin baitzuten. Emakumezkoen txirrindularitzari dagokionez, Euskal Herri mailako lasterketetan ez da entzungailurik erabiltzen, Espainiako Txapelketan eta Nazioarte mailakoetan bai ordea. Josu Agirrek, beti eramaten du gainera, tropeleko gainontzeko txirrindulari guztiek bezala. "Ni ondo moldatzen naiz, ez dit molestutzen. Abantailak eskaintzen ditu, bihurtzune txar bat datorrela jakinarazten denean bezala. Bestalde, bere menpeko bihurtzen gara, ez duzu iniziatibarik lasterketan, entzungailutik esaten dizutena egin behar duzu". Alde horretatik, Abraham Olanoren iritziz, entzungailuarekin ezin da txirrindularitza purua ikusi. "Demagun txirrindulariak oso ondo ikusten duela bere burua eta erasotzeko gogoz dagoela. Entzungailurik esaten dio zuzendariari aurrera joko duela, eta zuzendariak ezetz esaten dio. Iniziatiba kentzen dio lasterketari, mugimendua murrizten du". Entzungailuarekin, txirrindularitzak erromantikotasuna galdu duela bat datoz eztabaida kideak, baina txirrindulariek ikusizun ederrak eskaintzen

dituztela ere azpimarratu dute.

## TXIRRINDULARI GAZTEAK ELKARREN EREDU

Oxelek hamar urte inguru zituela Abraham Mortirolon gora ikusten zuen. Bera da Henialdekoaren ereduari bat. Hala ere, Josu Agirre bezalako txirrindulariek egin dako pausoei begiratzen die gehien bat: "Oriakon hasi zen Josu, gero Bidelan taldera igaro zen, han zegoela Orbeatik hots egin zioten eta gaur egun profesionala da". Aitor Olano Orbeako txirrindulari altzotarrak ere bide bera egin du. Eskualdean bertan ditu jarraitzeko moduko ereduak. Emakumeen txirrindularitzan, Itxaso Leundak, Eneritz Iturriaga eta Leire Olaberria aipatu ditu. "Eneritz beti daukat aldamenean irakaspenak emateko", esan du. Emakumezkoa izan arren, mutilak ere eredu dira Itxasorentzat. "Beraiek nola entrenatzen duten begiratzen dut, zer jaten duten, masaiak nola hartzen dituzten, zein material erabiltzen duten... Dena dut ikas-teko beraingandik". Lasterketa bat egin aurretik aholkulariak ere izaten ditu hernialdekoak.

Mahai-ingurua amaitzeko, Itxaso, Oxel, Josu eta Abra-

*"Entzungailuak erromantikotasuna kendu dio txirrindularitzari".*

hami denboraldi amaieran prentsan ikusi nahiko luketen titularra aukeratzeko eskatu zien moderatzaileak. Itxaso izan zen erantzuten lehena: "Ez dakit, dena ondo joan zaidala jartzen duen titularra izango litzateke onena, edo garaipenen bat lortu dudala dioena". Oxelek bere ametsa egi bihurtuta ikusi nahiko luke titular batean. "Profesionala pasatzea, edo garaipenen bat bestela: Bidasoako Itzulia, edo Aiztondo Klasi-ka esaterako". Josu Agirrek, "etaparen bat irabazi" izanaren berria ikusi nahiko luke. Abrahamek tekniko bezala lan egiten jarraitu nahi luke. Aholkuak ere izan zituzten elkarrentzako: "Gogoarekin hartzeko" gomendatu zien Josuk, Itxaso eta Oxeli. Olanok, berriz, "intentsibitatea mantentzeko, eguneroko lanean jarduteko" aholkatu zien eskubitara zituen hiru txirrindulariei. Denek ere izan dezatela zortea hasiera doan denboraldi berri honetan.

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO

**Aholkularitza integrala**

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

| Donostia                      | Donostia                  | Tolosa                      |
|-------------------------------|---------------------------|-----------------------------|
| San Martin, 16<br>943 425 886 | Garibai, 8<br>943 420 259 | Rondilla, 11<br>943 670 615 |
| 943 420 187                   | 943 430 947               | 943 671 149                 |

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**JANTZIAK**  
**OSKI**  
oiñetakoak

Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

# Abenduaren 19tik urtarrilaren 9ra arteko

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

» Abenduaren 20tik otsailaren 14ra arte: Juan Jose Aguirrerren erakusketa.

## Z I N E A

### LEIDOR

» Abenduak 20: Solo quiero caminar 19:30ean eta Retorno a Brideshead 22:30ean.

» Abenduak 21: Helleboy 2 17:00etan. Retorno a Brideshead 19:30ean eta Solo quiero caminar 22:00etan.

» Abenduak 22: Retorno a Brideshead 20:30ean.

» Abenduak 26: Los niños de Huang Shi 22:30ean.

» Abenduak 27: Bolt 17:00etan. Red de mentiras 19:30ean eta La boda de Rachel 22:30ean.

» Abenduak 28: Bolt 17:00etan. Los niños de Huang Shi 19:30ean eta Red de mentiras 22:00etan.

» Abenduak 29: Bolt 17:00etan eta La boda de Rachel 20:30ean.

» Abenduak 30: Kiriku eta basapiztiak 17:00etan. El sentido de la vida filma 19:15ean eta 21:45ean.

» Urtarrilak 3 eta 4. Un rockero en pelotas 17:00etan.

## EGUBERRIAK T O L O S A N

» Abenduaren 17tik urtarrilaren 5era: Eguberrietan ere liburuak oparitu erakusketa Errota haur liburutegian.

» Abenduak 20: Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldia Leidorren 17:00etan.

» Abenduak 26: Inalanbrikak antzerkia Leidorren 17:00etan.

» Abenduaren 28tik 31ra haur parkea Zerkaussian, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

» Urtarrilak 2: Toy Store zientzialari zoroen laborategia haur liburutegian 12:00etan hasita.

## ALURTXIKI AUZO ELKAR- T E A R E N EGUBERRIAK

» Abenduak 26. Idoia Sanchez ipuin kontalaria 17:30an, Galtzaundik antolatuta.

» Abenduak 27: Mendi erakusketa eta Asier Izagirre eta Edurne Pasabanen hitzaldia 20:00etan.

» Urtarrilak 3: Umeentzako pailazoak eta txokolatada 17:30ean.

## EGUBERRIAK I B A R R A N

» Abenduak 22: Haurrentzako jolas-parkea Belabieta kiroldegian: 10:30-13:00 eta 16:00-18:30.

» Abenduak 23: Ixabel Millet-en eskutik, Gagonetako euskal ipuinak ipuin kontaketa Kultur Etxean 11:30ean.

» Abenduak 29: BehiBi's taldearen eskutik Rosi erosi antzerkia Kultur Etxean 11:30ean.



» Abenduak 30: Txalo taldearen eskutik, Magia teilatueta antzerkia Kultur Etxean 11:30ean.

## EGUBERRIAK I R U R A N

» Abenduak 23: Gaztelekua apaintzeko hitzordua eta merienda 17:00etan.

» Abenduak 24. 12:00; kantuan arituta-koentzat hamaiketako Gazte Alaiak elkartearen. 18:30; Jaiotza biziduna eta Olentzeroren etorrera plazan.

» Abenduak 25: Eguberrietako meza 11:00etan.

» Abenduak 26. 17:30; Korri eta Xalto pailazoen Kantari ikuskizuna trinketean. 17:00; oparien irekitzea eta Bingoa. 22:30; adin guztientzako antzerkia: Ogi-rik gabe etorri zen semea.



» Abenduak 28: 11:00; Meza eta ondoren eguberrietako abestiak Aita Donostia abesbatzarekin.

» Abenduak 29: 17:00; Jubilatuta eta haurren arteko jaia Zaharren Biltokian. 17:00; kandelagintza ikastaroa gaztelekuan.



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**errotatxo  
okindegia**

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

# hitzorduak

\*\*\* **Abenduak 30:** 17:30; **Xilipurdi** haur berbena frontoian. 17:00; gaztelekuan kandelagintza ikastaroa.

\*\*\* **Abenduak 31:** 10:00; Plazatik aterata mendi ibilaldia Loatzora.

\*\*\* **Urtarrilak 1:** 11:00; Urteberri eguneko meza.

\*\*\* **Urtarrilak 2:** 17:00; **Hitzen lapurra** bertso txongiloa Gaztelekutik zinera irteera.

\*\*\* **Urtarrilak 3:** 11:00-13.00; I. Irurako argazki lehiaketan parte hartzeko izen-ematea Ikastolako gela borobilean.

## BONBERENEAREN 11. URTEURRENA

\*\*\* **Abenduak 19:** Por todos tus muertos antzerkia 22:30ean.

\*\*\* **Abenduak 20:** Urteurreneko bazkaria: 11:00; kalejira, txaranga, Mulanbo eta Tolosako konpartsarekin. 14:00; Bazkaria.

\*\*\* **Abenduak 23:** Okupazioaren 11. urteurrena. 19:00; **Bonberenea Txaranga**ren disko aurkezpena Tolosako kaleetan zehar. 21:00; afaria. 00:00; su artifizialak.

\*\*\* **Abenduak 26:** Evil Code eta Ange-lays taldeen kontzertuak 22:30ean.

\*\*\* **Abenduak 27:** Musika esperimentalaren gaua 22:30etatik aurrera.

\*\*\* **Abenduak 28:** Zine elkarrizketak, 18:30etan, **Requiem por un sueño** eta **El pico** filmeekin.

\*\*\* **Abenduak 29:** Futbol txapelketa 17:00etan hasita.

\*\*\* **Urtarrilak 3:** Ama say taldearen kontzertua 22:30ean.

## MOTZEAN

### Elkartasun krosa

Abenduaren 31ean, San Silbestre egunez, eskualdeko korrikalarientzat galdu ezinezko hitzordua izango da. XI. aldiz, Samaniego ikastetxeak Elkartasun Krosa antolatuko du.

Lasterketa arratsaldeko 15:30ean abiatuko da. Lehenik benjaminak egingo dute korri; 16:00etan aterako dira alebinak; 16:30ean, infantilak eta nagusiak, denak batera irtingo dira.

Izena emateko epea zabalik dago jada. Aralar Kiro-lak dendan eman daiteke, eta baita lasterketaren egun berean Zerkausira gerturatuz gero. Haurrek doan eman dezakete izena, eta helduak 5 euro ordaindu beharko dituzte aldeztu aurretik izen ematea eginez gero, egunetan bertan eginda 8 euro ordaindu beharko dira. Bildutako dirua, Kolonbiako Guabas errekararen inguruko proiektua bultzatzeko erabiliko da.



## Guardiako farmaziak ABENDUA

- Osteguna, 18**  
Etxebeste Jesus M<sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Ostirala, 19**  
Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
- Larunbata, 20**  
Tolosa, M<sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Igandea, 21**  
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
- Astelehena, 22**  
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
- Astearte, 23**  
Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa
- Asteazkena, 24**  
Bronte, Cecilia (Korreo, 20) Tolosa
- Osteguna, 25**  
Tolosa, M<sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Ostirala, 26**  
Etxebeste Jesus M<sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Larunbata, 27**  
Ugarte, M<sup>a</sup>Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Igandea, 28**  
Azpiroz Lourdes, Amaro 9. Tolosa
- Astelehena, 29**  
Olarreaga Marta (Martin Jose Iraola) Tolosa
- Astearte, 30**  
Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
- Asteazkena, 31**  
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur**  
Osasun zentroa. . . . . 943 653 212
- Altzo**  
Medikua . . . . . 943 654 737
- Anoeta-Alkiza-Hernialde**  
Medikua . . . . . 943 652 339
- Baliarrain**  
Medikua . . . . . 943 889 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**  
Medikua . . . . . 943 683 361
- Bidegoian**  
Medikua . . . . . 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**  
Osasun etxea . . . . . 943 672 411
- Ikaztegieta**  
Medikua . . . . . 943 653 329
- Irura**  
Osasun zentroa. . . . . 943 690 720
- Tolosa**  
Anbulatorioa, larrialdiak . . . . . 943 650 931  
San Esteban, hitzordua . . . . . 943 006 800  
Gernikako Arbola,hitzor . . . . . 943 006 900  
Amarozko dispensarioa . . . . . 943 672 637  
Asunzion klinika . . . . . 943 675 799  
(larrialdiak) . . . . . 943 675 390  
San Kosme San Damian . . . . .  
geriatrikoa . . . . . 943 672 932  
Udaltzaingoa . . . . . 943 675 858  
Ur eta Argia (Tolargi) . . . . . 943 650 016  
Ur zerbitzuak (aberiak) . . . . . 639 352 156  
Iurreamendi egoitza . . . . . 943 670 325  
Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . . 112  
DYA . . . . . 943 672 536  
Gurutze Gorria . . . . . 943 674 888  
. . . . . 943 651 425  
Ertzaintza . . . . . 943 673 022  
Tolosa Gasa . . . . . 943 675 320
- Lizartza**  
Medikua . . . . . 943 682 077
- Orendain**  
Medikua . . . . . 943 655 595
- Orexa**  
Medikua . . . . . 943 682 228

**Vicente**  
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jet.es

**TXOKOLATEGIA**

**Meriendak, txurroak**

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

**KAFETEGIA**

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izaguirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**Muxu-  
-truk**

Zure iragarkia muxu-truk atalean  
dohainik jartzeko aukera duzu.  
Deitu 943 655 004 telefonora

**LANA**

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**
- **Sagardotegirako sukaldari laguntzaile** eta zerbitzaria behar dira. **660 654 317**

**ETXEBIZITZA**

- **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. **645 718 536**
- **Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. **627834993**.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

**IKASKETAK**

- **Ingeleseko klaseak** ematen dira taldeka eta bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. **664 160 268**

**SALGAI**

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equip 18.000 euro. **629 52 51 50**.
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669**.
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512

**HOROSKOPOA**

ABENDUAREN 19TIK URTARRILAREN 9RA ARTEKO AURREIKUSPENEA

**ARIES**

Martxoak 21 – Apirilak 21

Kezkatuta zaude, lan arloan hastera doan urte honek zer ekarriko dizun ez dakizu eta. Saiatzen bazara lan postu on bat lortuko duzu. Baloratu ezazu zeure burua gehiago.

**TAURUS**

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Sabela haur antzean daukazu, beraz hartu neurria jan eta edanari. Berezi ki kontuz ibili Santo Tomas eguneko txistorrarekin. Urdailean kalte egingo dizu.

**GEMINI**

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Krisiari aurre egiteko inoiz baino loteria gehiago erosi duzu aurten. Itxaropentsu zaude, baina ez duzu zortetik izango. Dena den, urte berria ona izango da zure poltsikoarentzat.

**CANCER**

Ekainak 22 – Uztailak 22

Espero ez duzun pertsona batek zerbait aitortuko dizu urtea amaitzerako. Bestalde, kontuz esaten duzunarekin, zure zelatan dabilta, eta zu kaltetzeko interesa dute.

**LEO**

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Alferria izan zara eta alferrek ez dute saririk merezi. Hurrengoan egin zure lana eta jasoko duzu oparia. Zaindu hortzak eta ez jan turroi gogorrik gabon hauetan.

**VIRGO**

Abuztuak 23 – Irailak 22

Hastera doan hau zure urtea izango da. Bolada txarrak izango dituzu noski, baina zure bizitzako unerik onenak ekarriko dizkizu 2009ak. Espero ez duzun opari bat jasoko duzu.

**LIBRA**

Irailak 23 – Urriak 22

Urte berri eguna une egokia izan daiteke 2009ko helburuak finkatzeko. Zure eskura dauden lorpenetan pentsatu, bestela beste urte bat frustraturik igaroko duzu.

**SCORPIUS**

Urriak 23 – Azaroak 22

Txunditu nahi baduzu, oparitu iezaiozu zeuk eskuz egindako zerbait. Ilusio izugarria egingo dio, eta maitatua sentituko da. Hori asko interesatzen zaitzu, aspaldian ez baizabiltzate oso fin.

**SAGITTARIUS**

Azaroak 23 – Abenduak 21

Gabonekin bihotza samurtu zaio. Une eta leku egokian eskatzen badiotzu baiezkoa entzuteko aukera handiak izango dituzu. Gorrotoa ez da lagun ona. Urte zaharra amaitzearekin batera utzi beharko zenuke.

**CAPRICORNUS**

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Geldialdi bat egin beharko zenuke: zure bizitzan zein norabide hartuko duzun argitu beharra daukazu, noraezean egindako bidea alferrik egindako bidea baita.

**AQUARIUS**

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Mahaiaren bueltan protagonista izango zara, etxeko guztiak harro daude zutaz. Inoizko gabonik onenak izango dira hauek zuretzat. Lagun artean ere giro paregabeaz gozatuko duzu.

**PISCIS**

Otsailak 21 – martxoak 20

Urte bikain hau borobiltzeko moduan egongo zara. Urte zahar gauean jar zaitez apain, ligatu egingo duzu eta! Urte berria ez da txarragoa izango! Zorionak!



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



# Olentzero

Txokolatezko Turroi Txapela



## *Txokolatezko turroi txapela*

*Txokolate eta esnez eginiko txapelaren erreplika, banan banan eskuz landutako txapelak, itxura atertziopelatuarekin, arroz xigortu kraskatuaz beterik eta tofee gozoki ñabardurekin.*

G a b o n e t a k o   z o z k e t a



Alde Zaharra  
Dendak



# Autoa irabaz ezazu!

Gure bezeroen artean DACIA SANDERO autoa zozketatzen dugu

Eskaezazu  
txartela  
alde zaharreko  
dendetan



Zozketa 2009ko urtarilaren 9an  
RENAULT DACIA  
SANDERO AMBIANCE 1.4 75C  
Ekipamendun elektrikoarekin  
Matrikulazioa egina  
Trukagarria ez den oparia

